



EBAZPENA, 2021eko martxoaren 9koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe dauden Maisu-maistren kidegoko funtzionarioen arteko estatu mailako 2020/2021eko lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitaratzen da.

Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko aginduak (2020ko azaroaren 4koa EHAA), Maisu-maistren Kidegoko funtzionario irakasleen artean 2020-2021eko lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera, eta parte hartzen duen pertsonalari emandako behin betiko puntuazioak kontuan hartuta, behin-behineko destinoak esleitu dira.

Horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Maisu-Maistren kidegoko langile funtzionarioen arteko estatu mailako 2020/2021eko lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitara ematea.

Bigarrena.- Erreklamazioak aurkezteko eta destinoei uko egiteko epea irekitzea, 2021eko martxoaren 12tik 18ra, bi egun horiek barne.

Hirugarrena.- Erreklamazioa aurkeztu edo uko egitea ondorengo Interneteko helbide honen bidez egin behar da, adierazitako epean <https://irakaslegunea.euskadi.eus> Uko egitea bada, Nortasun Agiri Nazionalaren kopia ere aurkeztu beharko du.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 9an